



LKS AUDITORES, S. L. P.
Polígono Basabe. Pab. E-0 2º Dcha
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
T: 943 03 74 80
F: 943 03 74 81
lksauditores@lksauditores.es
www.lksauditores.es

FUNDACIÓN CRISTINA **ENEA FUNDAZIOA**

**Txostena, legeria betetzeari
buruzkoa, kontratazioaren
alorrean —Sektore Publikoko
Kontratuen 2017ko azaroaren
8ko 9/2017 Legeak onartutako
Sektore Publikoko Kontratuen
Legearen testuaren arabera—
eta 2023ko ekitaldiko langileen
kontratazioaren eta ordainsarien
alorretan**

2024ko ekaina



LKS AUDITORES, S. L. P.
Polígono Basabe. Pab. E-0 2º Dcha
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
T: 943 03 74 80
F: 943 03 74 81
lksauditores@lksauditores.es
www.lksauditores.es

Txostena, legeria betetzeari buruzkoa, kontratazioaren alorrean —Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuaren arabera— eta 2023ko ekitaldiko langileen kontratazioaren eta ordainsarien alorretan

Fundación Cristina Enea Fundazioaren Patronatuari:

Jaun-andreok:

Fundación Cristina Enea Fundazioaren urteko kontu laburtuen auditoretza bukatu ondoren, gure auditoretza-txostena aurkeztu dugu, eta urteko kontu laburtuen inguruan dugun iritzi profesionala adierazi dugu bertan. Urteko kontu laburtuen barruan sartuta daude 2023ko abenduaren 31ko balantze laburtua eta egun horretan amaitutako ekitaldiko emaitza-kontu laburtua zein txosten laburtua.

Azterketa horren testuinguruan, eta Fundazio honen auditoretzari buruzko gure enkargu-gutunarekin bat, kontratazio publikoaren arloan eta langileen kontratazioaren eta ordainsarien arloan legeak zenbateraino betetzen diren ebaluatu dugu.

Kontratazio publikoaren arloko legeak betetzea:

2018ko martxoaren 9tik aurrera, Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legea aplikatu behar zaio Fundación Cristina Enea Fundazioari. Lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legean (SPKlan), kontratazio-prozedurei buruzko irizpide hauek ezartzen dira, besteak beste:

- 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obrakoak, obra-emakidakoak eta zerbitzu-emakidakoak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, zerbitzu- eta hornidura-kontratuak direnean, zuzenean esleitu ahal izango zaizkio edozein enpresabururi, baldin eta jarduteko gaitasuna badu eta kontratuaren xede den prestazioa gauzatzeko behar den lanbide-gaikuntza badu. Kontratu txikietan, kontratazio-organoaren txostena beharko da espedientea izapidetzeko, eta kontratuaren beharra arrazoituko da bertan.

Txostena, legeria betetzeari buruzkoa, kontratazioaren alorrean —Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuaren arabera— eta 2023ko ekitaldiko langileen kontratazioaren eta ordainsarien alorretan

- 40.000 euroko edo gehiagoko eta 5.350.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten kontratuak, obrakoak, obra-emakidakoak eta zerbitzu-emakidakoak direnean, eta 15.000 eurotik gorako eta 214.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, zerbitzu- eta hornidura-kontratuak direnean, Legeak aurreikusitako eta araututako edozein prozeduraren bidez esleitu ahal izango dira: prozedura irekiaren, murriztuaren edo negoziatuaren bidez.
- Erregulazio harmonizatuari lotuta daude 5.350.000 euroko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak, bai eta 214.000 euroko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak ere.

Gure auditoretza-prozedurak Fundazioak ekitaldian egindako kontratazio-kontratu eta/edo -espedienterik esanguratsuenak aztertzea bideratu dira, eta egiaztatzea Sektore Publikoko Kontratuen Legea bete duen (eragiten dion guztian) eta klausula sozial eta ingurumenekoei eta beste politika publiko batzuei buruzkoak kontratazio-prozeduran txertatu ote dituen.

Zehazki, 2023an indarrean dauden espediente hauek aztertu ditugu:

- 2021_001 A espedientea. «Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxeko harrera, eta zuzendaritzaren idazkaritza teknikoko, kontabilitate-arloko, kultura-proiektuen arloko, hezkuntza-arloko eta dokumentazio-zentroaren eta Ziklotekaren kudeaketako harrerak»:

Kontratuaren aurrekontua BEZik gabe:	195.200 euro
Kontratuaren data:	2021/07/30
Indarraldia:	2021eko abuztuaren 1etik 2024ko martxoaren 31ra arte
2023an fakturatua:	73.200 euro

- 2022_001 A espedientea. «Fundación Cristina Enea Fundazioaren Hezkuntza Departamenturako laguntza teknikoko zerbitzua».

Kontratuaren aurrekontua BEZik gabe:	32.069 euro
Kontratuaren data:	2022/02/23
Indarraldia:	2022ko otsailaren 24tik 2023ko otsailaren 23ra
2023an fakturatua:	32.208 euro

(*) Kontratu hau 1. klausulan aurreikusitakoaren arabera luzatu da

(**) Baldintza-orrian, 800km-ko gehienezko mugaraino, 0,29 €/km-ko aurrekontu gehigarria aurreikusten da eta horrek 139 €-ko fakturazioa suposatu du.

Txostena, legeria betetzeari buruzkoa, kontratazioaren alorrean —Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuaren arabera— eta 2023ko ekitaldiko langileen kontratazioaren eta ordainsarien alorretan

- 2022_003 A espedientea. «Donostiako Eskolako Agenda 2030 dinamizatzeko kanpo-aholkularitza teknikoko zerbitzuak kontratatzea 2022-2023 ikasturtean eta, behar bada, 2023-2024 ikasturtean»:

Kontratuaren aurrekontua BEZik gabe:	20.750 euro
Kontratuaren data:	2022/07/20
Indarraldia:	2022ko irailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era
2023an fakturatua:	12.450 euro

(*) Kontratu hau I. klausulan aurreikusitakoaren arabera luzatu da

- 2022_004 A espedientea. «Fundación Cristina Enea Fundazioak 2023an eta 2024an garatuko diren jarduera didaktikoak monitorizatzeko eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuak kontratazioa»:

Kontratuaren aurrekontua BEZik gabe:	176.000 euro
Kontratuaren data:	2023/01/14
Indarraldia:	2023ko urtarrilaren 15etik 2025ko urtarrilaren 14ra
2023an fakturatua:	68.778 euro

(*) Kontratuaren aurrekontua ondorengo kontzeptu eta kopuruek osatzen dute:

- Erreserba-zentrala: 53.000 euro.
- Publiko orokorrari zuzenduriko laguntza didaktikoa: 20 euro orduko.
- Ikasle zein publiko orokorrari zuzenduriko jarduerak (astelehenetik ostiralera): 35 euro orduko.
- Publiko orokorrari zuzenduriko jarduera didaktikoak (asteburuak eta jaiegunak): 40 euro orduko.
- Publiko orokorrari zuzenduriko jarduera bereziak: 65 euro orduko.
- Langilei zuzenduriko prestakuntza: 30 euro orduko.

Txostena, legeria betetzeari buruzkoa, kontratazioaren alorrean —Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuaren arabera— eta 2023ko ekitaldiko langileen kontratazioaren eta ordainsarien alorretan

- Exp. 2023_001 A “Fundación Cristina Enea Fundazioaren kontabilitate-, zerga- eta lan-arloko aholkularitza iraunkorreko zerbitzu profesionalak kontratazioa”:

Kontratuaren aurrekontua BEZik gabe:	34.500 euro
Kontratuaren data:	2023/04/28
Indarraldia:	2023ko maiatzaren 1etik 2027ko apirilaren 30era
2023an fakturatua:	5.750 euro

- Exp. 2023_002 A “Hondalea guneko bisitariei harrera egiteko zerbitzua kontratazioa, bai eta bere deien telefonoguneko kudeatzeko (Idazkaritza eta Antolaketa Teknikoa) zerbitzua ere, 2023an eta 2024an, eta, hala badagokio, 2025ean eta 2026an”:

Kontratuaren aurrekontua BEZik gabe:	112.000 euro
Kontratuaren data:	2023/01/14
Indarraldia:	2023ko ekainaren 1etik 2026ko maiatzaren 31era
2023an fakturatua:	28.000 euro

Horretarako, zegokionean, honako hauek aztertu ditugu: kontratuaren prestaketa, kontratazio-prozeduraren hasieraren eta, dagokionean, lizitazioaren hasieraren arteko jarduketak barne hartzen dituen; lizitazio-prozedura (argitaratzea, eskaintzen dokumentuak, aurkezpen-epeak, organo eskudunaren ebazpena eta ezarritako irizpideen arabera puntuaziorik handiena jaso duen eskaintzari esleitzea); adjudikaziodunak kontratazeko duen gaitasuna, eta kontratua gauzatzea.

Era berean, egiaztatu dugu Fundación Cristina Enea Fundazioak Sektore Publikoko Kontratuen Legea bete duela, eta printzipio hauek aplikatu dituela: publizitatea, lehia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

Kontratazio publikoari buruzko legeria aztertzeko egindako lanean agerian geratu denez, 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian Fundación Cristina Enea Fundazioak bete egin ditu kontratazio publikoaren arloan indarrean dauden legeak.

Langileen kontratazioaren eta ordainsarien arloko legeak betetzea:

Langileen kontratazioaren eta ordainsarien arloko legeak betetzeko, Fundación Cristina Enea Fundazioaren Patronatuan Fundazioko langileei buruz hartutako erabaki hauek egiaztatu dira:

Txostena, legeria betetzeari buruzkoa, kontratazioaren alorrean —Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuaren arabera— eta 2023ko ekitaldiko langileen kontratazioaren eta ordainsarien alorretan

- 2017ko abenduaren 19an, Fundación Cristina Enea Fundazioaren Patronatuak erabaki zuen Fundazioko langileei «Donostiako Udaleko langileen 2014ko lan-baldintzak arautzen dituen akordioa» aplikatzea (2014ko uztailaren 14ko GAOa), soldatako zein soldataz kanpoko kostuak zuzenean handitzen ez dituzten eta indarrean dauden lege-mugak urratzen ez dituzten gai guztietan.
- 2019ko ekainaren 11n, Fundación Cristina Enea Fundazioaren Patronatuak erabaki zuen behar bezain zabal ahalduntzea Fundazioaren Gerentzia, udalaren tokiko gobernu-batzarrak aurrerantzean bere erakunde instrumentaletarako onartzen dituen aplikazio orokorreko ordainsari-gehikuntza edo ordainsari-esleipen berak aplikatzeko Fundazioko langileei.

Ondoren egiaztatu denez, Fundazioaren Patronatuan hartutako bi erabakiak egikaritzuz, 2023ko ekitaldian langileen ordainsariak %3 igo dira. Igoera horren baitan sartzen da 2024ko martxoaren 5ean erabakitako %0,5eko igoera. Igoera horrek atzeraeraginezko izaera du, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera duelarik eragina. Azkenik, langile bakoitzari 1.000 euroko produktibitate-osagarria ezarri eta abenduko nominan ordaindu zaiola egiaztatu da.

Bestalde, ez da beste langilerik kontratatu 2023ko ekitaldian.

Langileen kontratazioaren eta ordainsarien arloko legeria aztertzeke egindako lanean agerian geratu denez, 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian Fundación Cristina Enea Fundazioak bete egin ditu langileen kontratazioaren eta ordainsarien arloan indarrean dauden legeak.

Komunikazio hau Entitatea jakinaren gainean jartzeko egin da, eta, ondorioz, ezin izango da beste ezein helburutarako erabili.

Adeitasunez,

LKS AUDITORES, S.L.P.



Pedro M. Jauregui Bidaburu
2024ko ekainaren 12a

"Auditorretza-txostenaren sinadura elektronikoa haren osotasunaren eta edukiaren eta sinatzailearen nortasunaren justifikazio eta autentifikazio gisa baino ez da ematen. Auditorretza-txostenaren data, ondorio guztietarako ulertuta, eta, bereziki, Espainian indarrean dagoen kontu-auditorretzaren araudia aplikatzeko data, lana egin duen kontu-auditorre arduradunaren eskuzko sinadurapean agertzen dena da".